

txi
kitto!

2026ko maiatza



IPURTERRE
Hitzei eta
sormenari
aitortza



XXXII. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

Badira 32 urte ...eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre Ipuin Lehiaketa abian jarri zuela. Eibarko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen duen ekimen honen helburua haur eta gazteen artean irakurzaletasuna eta idazteko zaletasuna bultzatzea da. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten 1.000 ipuin inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere eta, beraz, irabazleei zoriontzearaz gainera, gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu parte hartu duzuen guztioi. Jarraitu idazten eta irakurtzen, Eibarren harrobi ederra dugu-eta!

EU: © [2026] [Egilea]. Argitalpenerako baimena: DBEO (UE) 2016/679 • LO 3/2018 • LO 1/1982 • LO 1/1996 • LO 8/2021 • 2/2024 Eusko Legea (Haur eta Nerabeena), 50. art. • RDL 1/1996. ...eta kitto! Euskara Elkartea (IFZ G-20416152). Baimena erreboka daiteke: banaketa@etakitto.eus



Argitaratzailea

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Naiara Esnaola

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo / Ohiane Zabala

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Irune Jaio

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96





LH 1-2	CLAUDIA ARANZABAL CONDE (San Andres)
	SUPER PANTXO

Bazen behin txakur bat Pantxo deitzen zela. Bera txakur magikoa zen eta kapa bat zuen. Animaliak defendatzen zituen.

Egun batean beste txakur batekin topatu zen eta lagunak egin ziren.

Bere izena Bus zen eta txakur magikoa zen ere. Ardi batekin topatu ziren eta lagundu egin zioten otsoa bere kumeak jan zituelako.

Otsoaren bila joan ziren eta topatu zutenean Pantxo tripa ireki zion eta kumeak atera zituen.

ETA KATU, KATU
IPUINA BUKATU



LH 3-4



UNAX FERREIRO

(La Salle Isasi)

HOSTO IBILTARIA



Bazen behin, baso baten bizi zen zuhaitz bat. Ez zituen hostoak galtzen, hosto iraunkorreko zuhaitza zelako. Baina hosto horietako batek inbidiaz begiratzen zien lurrera erortzen ziren hostoei, berak ere libre izan nahi zuen.

Orduan

maitagarri bat agertu zen eta bere nahia bete zuen: lurrera erori eta hosto ibiltaria bihurtu zen. Mundua ezagutzera joan zen bere botere berriarekin. Italia, Japon, Egipto, Eibar bisitatu zituen, trenez, itsasontziz, hegazkinez..., Ibili eta ibili, abentura zoragarriak bizi zituen.

Mundu osoan zehar, mota guztietako lagunak egin zituen! Landareak, gizakiak, animaliak... Baina ez zuen benetako etxerik aurkitu eta bakarrik sentitzen zen. Bere familia utzitako zuhaitz hartan zegoela konturatu zen. Beste hostoekin bueltatu nahi zuen, baina ez zekien bidea. Orduan maitagarriari laguntza eskatu zion. Maitagarriak bere zuhaitzera bueltan eraman zuen. Denbora pasatu zen eta udazkena iritsi zen. Bapatean haize bolada batek gure hostotxo lurrera bota zuen. Orduan konturatu zen bizitako guztia amets bat zela eta bera hosto galkorra zela.

LH 5-6



INTZA AMILLATEGI ALBERDI

(J.A. Mogel)

**IRATI
ERLEA**

Kaixo!

Ni Irati erlea deitzen naiz eta, nire izenak esaten duen bezala, erle bat naiz, erle alai bat. Bidaiatzea asko gustatzen zait, horregatik nire familia eta ni, alde batetik bestera ibiltzen gara. Nire familian, aitatxo, amatxo eta ni gaude eta alde batetik bestera ibiltzen garela diodanean, asko bidaiatzen dugula esan nahi dut. Adibidez, orain dela 3 urte, 2023an, ni jaio nintzen urtean, Irati Basoan bizi ginen, nire izena hortik datorrela dio nire amak. Orain berriz, Kalamuako tontorrean dugun erlauntz txiki batean bizi gara. Iratin bizi gineneko, eta nire aita ur bila joateko eskatu zidaneko, istoriotxo bat kontatuko dizuet.



Errekara, poz-pozik nindoala, gertatu zen dena. Ni han nengoen, etxeke kuboarekin ura biltzen, eta bat-batean, zerbait sumatu nuen, beste aldera begiratu eta hor zegoena, pizti arraro bat zen, gauza arraro bat. Begi 1, 2 belarri, sudur bat, hankak, besoak eta ile asko dituen, baina batez ere, pizti hura, erraldoia zen, indartsua, handia, liluragarria... Tartaloren antza handikoa. Bada, bai, TARTALO zen!

Liluraz josita, berarengana aurreratu nintzen, baina, ez nuen ideia batere



onik eduki. Tartalo
besoak arin eta
azkar mugitzen
hasi zen. Nik
ordea, izututa,
ziztada bat
eman nion,
berak ez zuen
ezer sentitu
baina, nik bai,
ezin nuen
sinistu ere
egin, hiltzera
nindoan!

Baina,
pertsona edo
pizti arraro,
mitologiko horrek
bere magia erabiliz,
oso jatorra
zenez, berpiztu
egin ninduen.
Handik aurrera,
elkarrenganako konfiantza edukita,
bere lagun mina bihurtu nintzen eta bizitza oso ondo joan zitzaidan, bai
niri, eta baita Tartalori ere. Orain, mesedeak egiten dizkiogu elkarri, nik
eztia ematen diot eta Berak niri bestelako janaria.

Asko maite dugu elkar!

Beno, joan egin behar naiz, Tartalo, jolastera joateko deitzen ari zait eta.
Kontu kontari, esan agur ipuinari!



DBH 1-2	IRUNE INCIARTE <i>(La Salle Azitain)</i>
	UDAKO PELIKULA

Bazen behin, Ondarroa izeneko herri batean, bi anai-arreba udako aste batzuk bere aitona-amonarekin pasatzera zihoazen. Anai arreba horiek Nora eta Jon ziren, bikiak ziren, 13 urte zituzten eta oso ondo eramaten ziren. Nora ausarta zen baina Jon beldurti xamarra zen. Bere aitona-amonaren etxea herriaren erdian zegoen eta dena oso gertu zuten. Udako egun batean kaleko zinema zegoen, Nora eta Jonen pelikula gogokoena jartzen zuten, eta beren lagunak oraindik herrian ez zeudenez, bakarrik joatea erabaki zuten.

Gauean afaldu, prestatu eta plazara jeitsi ziren eta “Oihanaren itzalak” izeneko pelikula ikustera joan ziren. Goiz joan zirenez, oso toki onean eseri ziren, erdi-erdian. Pelikula hasi baino lehen Jon krispetak erostera joan zen, baina krispetak hartzean, saltzaileak honelako zerbitu esan zion: Paisaiarekin bat ez datorrena aurkitu. Jonek ez zuen ondo entzun, hau da, gaizki entzun zuela uste zuen, baina hala ere harrituta gelditu zen. Bere tokira bueltatu zen. Bat-batean pelikularen erdian pantailatik argi urdin bat ateratu zen eta Nora eta Jon xurgatu zituen. Pelikularen barruan zeuden, haitzulo batean! Irteera bat bilatzen hasi ziren, baina oso arriskutsua zen, oihanean tigre ugari zeudelako, gainera oihan hori pelikulako berdin-berdina zen eta Josh kapitainak esaten duen bezala oihan hori 105 futbol zelai baino handiagoa zen eta zuhaitz eta landare altuekin ezin zen urruneko paisaiak ikusi, bat batean animalia bat etorri ahal zitzaizun.

Baina bat batean Jon saltzaileak esandakoaz gogoratu zen eta altuan ohiukatu zuen:

- Paisaiarekin bat ez datorrena aurkitu!
- Norak, harrituta, honela erantzun zion:
- Zer esaten ari zara?

Jonek dena azaldu zion, eta oihanean bat egiten ez zuen objektu bat bilatzen hasi ziren. Joni beldurra ematen zion haitzulotik ateratzean hartz edo tigre bat aurkitzea. Jon jiratu eta txori handi bat pasa zitzaion sorbaldaren altueratik, baina garaiz makurtu zen. Denbora ugari egon ziren ibilzen eta ibiltzen, ez zuten ezer aurkitzen eta momentu batez amore eman zuten. Gose eta egarri ugari zuten, baina Jon gogoratu zen krispetak zituztela eta zuhaitz baten sustraietan eseri ziren eta pelikula ikusteko erosi zituzten krispetak jaten hasi ziren. Bat-batean Norak komun bateko atea ikusi zuen, zuhaitz baten enborrean. Denbora luzea eman zuten atetik sartu ala ez erabakitzen, beldur zutelako hortik pasatzeko, toki txarrago batera joan ahal zirelako, baina handik alde egin nahi zuten, beraz, arriskua hartzea erabaki zuten.

Atea gurutzatu zuten eta herriko plazan dauden komun publikoetan



agertu ziren, komunetik irtetzean 10 pertsona baino gehiagoko kola zegoen, denak kexaka zeuden, baina Jon eta Nora etxera joan ziren korriketan, beren aitona-amonarengana.

Beraiekin komediazko pelikula ikusi zuten, berriro beste toki beldurgarri batera joateko beldurra zutelako. Pelikula amaitzean lotara joan ziren. Hurrengo eguneko gauean berriro kaleko zinema zegoen eta pelikula ikustera joan beharrean hondartzara joan ziren ilunabarra ikustera aitona-amonarekin.

Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Ondarroako plaza nagusian.

DBH 3-4

ITZIAR GAMERO ETXEBERRIA

(La Salle Azitain)



GAU AHAZTEZINA

Larunbat normal bat zela, Patxi 21 urteko mutil bat, Berlinen zegoen. Duela hilabete gutxi bere neska-lagunarekin utzi zuen eta aldaketa bat nahi zuenez Erasmus-a egitea erabaki zuen. Hilabete batzuk zeraman Berlinen eta lagun asko egin zituen unibertsitatean, batzuk Berlinekoak eta beste batzuk Euskal Herrikoak, bera bezala.

Beraiekin hitz egiten zegoela, diskotekara joatea adostu zuten. Bere lagunak, Florianek, proposatu zuen plana. Patxik ez zekien ezer diskoteka horri buruz, gainera, oso izen arraro bat zuen, "BERGHAIN", baina ez zekien zergatik, izen arraro hori ezaguna iruditu zitzaion. Floriani galdetu zion kuriositatea zuelako eta berak esan zion Berlingo



diskotekarik eksklusiboena zela. Hori entzuterakoan Patxiren gogoa handitu zen. Dena grabatu nahi zuen, baina sartu baino lehen mugikorrak sartzea debekatu zieten. Bere taldeko batzuek diskotekaren sarreratik joan ziren beraien gogoa joan zelako mugikorrak kentzerakoan, baina Patxiri bakarrik bere gogoa askoz gehiago handitu zitzaion. Ezin zuen gehiago itxaron sartzeko baina Florianek esan zion oso pertsona gutxik lortzen zutela barrura sartzea.



Ordu erdi geroago, Patxik kanpoan jarraitzen zuen. Oso urduri zegoen eta kuriositate handia zuen, ilaran zegoela, bere aurrekoak joaten zirela soilik ikusten zuen ez zutelako sartzea lortzen. Bere txanda heldu zenean, dardarka zegoen burutik hanketaraino. Segurtasuneko pertsona minutu bat egon zen berari begira, baina Patxiri bost ordu izan zirela iruditu zitzaion. Minutu bat geroago, segurtasunekoak pasatzeko esan zion. Bere lagunek ez zuten lortu sartzea, orduan, berak bekarrik biziko zuen esperientzia.

Barruan zegoela, inoiz ikusitako gauzak ikusten zituen; elefanteak zintzilik, ura airean, sua lurretik...benetakoak izatea ezinezkoa zela uste zuen gauzak ikusten zituen.

Nahiz eta hilabete batzuk egon Berlinen ez zekien alemanez hitz egiten. Orduan, lehenengo 30 minutuak egon zen bilatzen norbait berarekin hitz egin ahal zuena bere hizkuntzan. Etsi egingo zenean bat batean Eukene izena entzun zuen eta korrika joan zen beregana. Bere izena esaterakoan Eukene biratu egin zen eta bere bizitzan inoiz ikusi zuen neskari ederrena ikusi zuen. Eukene Patxiren egoera berdinean zegoen eta hortik aurrera hitz egiten hasi ziren. 2 ordu zeramaten hizketan baina 5 minutu bezala izan zen beraientzat, betidanik ezagutzen zirela iruditzen zitzaien.

Komunera joaterakoan alemanez ez zekitenez lehenengo atera sartu ziren, kartel bat zegoen eta komunerako zela pentsatuz sartu ziren. Atea itxi zuten baina dena ilun zegoen, orduan, irteteko saiakera egin zuten baina hor geratu ziren harrapatuta. Beraien eskuak alkartu ziren beldur zirelako. Elkarrekin, pixkanaka-pixkanaka aurrera joan ziren eta bat batean zulo beltz batera jauzi ziren, zirudien ez zuela amaierarik. Biak garrasika hasi ziren eta beraien sentimenduak aitortu zituzten bestearengan, hilko zirela pentsatuz.

Azkenean zakarrontzi handi batean amaitu zuten, hainbeste drama ezertarako, baina egun hartatik ez dira inoiz banandu. Orain, seme bat dute Florian izenekoa eta oso zoriontsu dira Bermeon bizitzen.



Ez dira soberakinak, janaria da!

Eibarko hainbat ikastetxetako ikasleek sentsibilizazio kanpaina berezia burutu dute azken asteetan: 'Ez dira soberakinak, janaria da!'.

Kanpainaren helburua janaria ez xahutzea eta hobeto aprobetxatzen ikastea izan da. Horretarako, Urkizu, San Andres, La Salle Isasi, Amaña, Arrateko Andra Mari, J.A. Mogel eta La Salle Azitain ikastetxeetako ikasleek, eta Eibarko Udalarekin eta Debegesaren lankidetzarekin, egin dute lan.

Ikasleek kartelak, eskuorriak eta aurkezpenak sortu zituzten, eta herritarrak sentsibilizatzeko kalera ere atera ziren. Auzoetan jarritako informazio puntuetan, janaria ez galtzeko aholkuak partekatu zituzten, hala nola:

- Erosketak egin aurretik ondo planifikatzea
- Janari kantitate egokia prestatzea
- Soberakinak berrerabiltzea

Gainera, ikasleek adinekoen zentroetan hitzaldiak ere eman zituzten, eta elkarrekin janariaren inguruko esperientziak partekatu zituzten.

Kanpainaren bidez, guztiek ikasi dute ideia garrantzitsu bat: janaria ez da botatzeko, aprobetxatzeko baizik!

Zer da Rexcatering?

Jantokietako soberakinak berreskuratu eta herritarren eskura jartzen ditu proiektuak. Sukaldeko langileek eta ikasleek elikagai-soberakinak ontziratu, etiketatu eta makinetara eramaten dituzte.

Non daude makinak eta nork hornitzen ditu?

- Legarreko frontoiko makina: Egogain egoitza, J. A. Mogel ikastola eta La Salle Isasi ikastetxea.
- Errebal plazako makina: San Andres eskola eta Aldatze ikastetxea.
- Urkiko makina (Urki, 16): Arrateko Andra Mari eskola.



6 urte

Adiskideak

Lula otsoa jada ez dago galduta, baina ezin du etxetik atera: negua da eta elurra ari du, hotz handia egiten du! Zorionez ez dago bakarrik, adiskide berriak ditu. Bera bezala zuhaitz erraldoiaren txoko ezberdinetan bizi diren animaliak dira: Marta, Bizar eta Perru. Hasierak, lagun berriekin, ez dira beti errazak izaten ordea, ezta?



8 urte

Onin eta lapurren haizulua

Ausartuko al zara globo batera igotzera, ur bizietan rafting egitera eta hilobi zahar batzuek gordetzen duten sekretua deskubritzera? Urdaibai Bird Center behatokiko bisita lasaia erlojuaren aurkako lasterketa bilakatu zaigu. Pirinioetako azken hartzak bahitu egin dituzte, eta arrisku larrian daude. Ez badugu lehenbailehen esku hartzen, betiko desagertuko dira. Eragotzi egin behar dugu!



10 urte

Urrezko duna

La dune d'or kanpinera etorri dira Mara eta gurasoak. A! Eta Pellot, hiru hanka eta begi bakarra duen txakur filosofoa, Mararen lagun leiala. Egun batean, Marak eta lagunek Marinexa Kakottipiren kondairaren berri izango dute: itsasoan galdu arren, pirata andrea lehorrera irteten omen da noizbehinka. Harena ote da hondartzan dagoen txalupa zaharra?



■ BITXIKERIAK

Australia
Ilargia baino
zabalagoa da. Ilargiak
3.400 km-ko diametroa
du; Australiak, berriz,
ia 4.000 km-koa.

Giza garuna
ordenagailu bat
balitz, segundoko
38.000 bilioi
eragiketa egin
litzake.

Munduko
bihotzik
handiena duen
animalia **bale urdina**
da. Itsas animalia erraldoi
honen bihotzak **180**
eta 200 kilo artean
pisatzen du.

Topatu 12 ezberdintasunak



Zu bai margolari

Zu bai

Koloreztatu falta den irudi zatia



margolari

Zubair m

argoları



Zu bai margolari

margolari

Zu bei!

bai margolari!